



AURREKO urteetan bezala, milaka lagun elkartuko dira Sagarrondotik jaialdiko karpan, Hernanin. SAGARRONDOTIK

Askotariko taldeak ariko dira Sagarrondotik rock jaialdian

Hilaren 17an eta 18an izango dira kontzertuak Hernanin jarriko duten karpan erraldoian

XABIER MARTIN - DONOSTIA

Sagardoaren Kultura Sustatzeko Elkartek Sagarrondotik jaialdia antolatuko du martxoaren 17, 18 eta 19rako, eta egitarau zabala iragarri dute. Ohikoa denez, Hernanin (Gipuzkoa) ospatuko da jaialdia, musika kontzertuak, sagardo dastatzak, otorduak, eta abar hartuko dituen propio jarritako karpa erraldoi batean. Urnietan ere, Hernanitik hurbil, izango dira hainbat ekitaldi. Martxoaren 19an, igandean, herri kirolak eta sagardo festa antolatuko dute han. Besteak beste, eskulangintza azoka, zekor erretzea eta dultzaineroak izango dira.

Hala ere, ekitaldi indartsuenak ostiralean eta larunbatean egingo dituzte, hilaren 17an eta 18an. Rock jaialdiaren egitarauari begiratzea besterik ez dago eskaintza zabalak dela ohartzeko. Sorkun, Chambao, THC, Loquillo y Los Trogloditas eta Pal Keli ariko dira ostiralean. Larunbatean berriz, Morodo, Berri Txarrak, Betagarri, Celtas Cortos eta Hamlet taldeek

emango dute kontzertua. Karabel auzoan, Landare errugbi zelaiaren parean jarritako karpa, arratsaldeko 20:00etan zabalduko dute, eta 21:00etan hasiko dira kontzertuak. Guztira 10.000 lagunentzako sarrerak jarri dituzte salgai, «karparen barruan estalita eta eroso egon daitekeen kopurua». Egun bakarreko sarrera 21 euroren truke eros daiteke eta bi eguneko bonoa 36ren truke. Karpan bertan erosita, 24 euroren truke salduko dute egunekoak.

Atzo egindako aurkezpenean, antolatzaileek ez zuten esan taldeak zein ordenatan ariko diren, baina talde zerrendari buruz azalpen bat eman zuten. «Living Colour eta O'Funk'illo zerrenda-

tik geratu dira elkartearen ahalmenetik kanpoko arazoak izan direla medio. O'Funk'illo duela gutxi desegin da, baina abeslaria ordezkaturik taldekide guztiek aurrera egin dute Pal Keli izenarekin, eta talde hori Hernanin izango da. Living Colour taldearen ordezkari, Hamlet madrildarrak etorriko dira. Hala ere, pozik gaude koloreari eta aniztasunari eustea lortu dugulako».

Sagarrondoaren sustraia eta adarrak

Beste batzuen artean, Loquillo, Celtas Cortos taldeko Jesus Cifuentes, THCKo Eba eta Sorkun izan ziren atzoko aurkezpenean. «Gure ibilbidean sarritan bat egin dugu Euskal Herriarekin, eta poztan naiz nire estreialdi berria hemen izatea», esan zuen Cifuentesek. Celtas Cortos utzi zuen abeslariak, baina berriro haiekin da, eta aldi berriko lehen emanaldia Sagarrondotik jaialdian izango da. Loquillorentzat, hastera doan birako lehen emanaldia izango da. «Hernanikoa izango da birako

lehen kontzertua, baita Jaime Stinus gitarrista donostiar berriarekin emango dugun lehen ere». Talde bakoitzak oholza gainean zenbat denbora izango duen ere iaipatu zuen. «Jaialdi batean beste taldeei begirunea izan behar zaie. Horregatik, ordutegiari begira ariko gara gu». Talde bakoitzak «ordubete pasatzeko denbora» izango du antolatzaileen arabera. THCKo abeslari Eba pozik azaldu zen, «10.000 lagunengatik aurrean jartzeko aukera» eman dietelako. «Musika egitea atsegin dugu, baina musika partekatzea are atsegingarriagoa zaigu». Sorkunek onartu zuen taldeen zerrenda ikustean harrituta geratu zela. «Ez bururik eta ez hankarik ez zuela pentsatu nuen, baina, beharbada, hori da hoberena, talde bakoitza adar batetik datorrela. Izan ere, hemen musika mota guztiak entzuten dira, flamenkoa, rocka, hard-corea... Hala da herrialde hau». Sagardoarekin duen harremanaz galdetu zitenean, hara Loquilloren erantzuna: «Neurri batean sagardoaren kulturak finkatu du

Egitaraua

Martxoaren 17a (Hernani)

21:00: Sorkun, Chambao, THC, Loquillo y Los Trogloditas eta Pal Keli.

(20:00etan zabalduko da karpa).

Martxoaren 18a (Hernani)

21:00: Morodo, Berri Txarrak, Betagarri, Celtas Cortos eta Hamlet.

(20:00etan zabalduko da karpa)

Martxoaren 19a (Urnieta)

10:00: Herri kirolak: Astigarraga, Hernani, Urnieta eta Usurbilgo kirolari ez-profesionalen artean.

Ondoren, Sagardo Festa: Buruntaldeko produktu eta eskulangintza azoka, sagardo dastaketa, zekor erretzea, dultzaineroak...

Datua

10.000

lagun sartu ahal izango dira Hernaniko Karabel auzoan paratuko duten karpan. «Estalita eta eroso» egoteko moduan egongo dira hilaren 17ko eta 18ko kontzertuak ikustera doazenak. Han bertan, sagardo dastaketa eta otorduak egin ahal izango dituzte.

ni hemen bizitzea, horregatik jaialdi honetan egotea luxua da niretzat». Galdera berari erantzun irudimentsua eman zion Jesus Cifuentesek: «Sagarrondo baten sustrai sentitzen gara nolabait, eta ez legoke gaizki sagarrondo hori hemengo baserri batean landatuta dagoela pentsatzea».

Sagardoaren lurraldean sagardoaren kultura sustatzeko sortu zen Sagarrondotik elkar-tea, duela lau urte. «Sagardoa ez da bakarrik edaria, historian haren inguruan sortu den guztia ere bada. Baserri guztiak izan dira neurri batean sagardotegi, eta dantza, musika eta kultur adierazpide gehiago elkartu dira sagardoaren inguruan». Sagardoarekin lotutako «zerbait berria» eskaini nahi du Sagarrondotik jaialdiak, «moda batetik baino haratago doana».

2003. urteko martxoan antolatuko zuten lehen aldiz Sagarrondotik jaialdia. Orduetik ez du hutsik egin, eta urtero hamar mila lagun inguru bildu ditu Hernanin. Beste askoren artean, SA, La Polla, Kiko Veneno, Gari, Su ta Gar, Fito & Fitipaldis, Reincidentes, The Wailers, Barricada eta Fermin Muguruza aritu dira Sagarrondotik jaialdian.

ALDAKETAK

Living Colour eta O'Funk'illoren ordezkari, Pal Keli eta Hamlet taldeak ariko dira Hernanin